

DIEGO GOITIAREN EUSKARAZKO ESALDI BILDUMAK

Donostia, 1982-II-26

Juan San Martin

Diego Goitia aulestiarraren euskarazko lanak aipamenez baizik ez genituen ezagutzen. 1903. urtean Labayruk *Historia General del Señorío de Vizcaya*-ren VI. tomoko XII. kapituluaren azkenean aipatzen zuenaz ere ez dakit inor ohartu zen. Labayruren obra 1969an birargitaratzean jabetu nintzen hortaz eta *Egan* aldizkarian ohar batzu egin ere bai, lanok galduak ote ziren galdezka (ikus, *Egan*, II Epoca, Vol. XXIX, Uztaila-Abendua, 1969. 4-6 zenb. 99 orr.).

Diego Goitia aulestiarra, XVIII. mendean bota zituzten jesuitarikoa zen eta garaiagatik eta orduko beste zenbait jesuitak egin zituzten euskarazko lan bikainegatik bere lana garrantzitsua izan zitekeala iduritu zitzaidan.

Geroztik Aita Jose Ramon Egillor Loiolako artxibaria ezagutu nuen, gordailu hartako paperak antolatzen ari zena. *Egan*-en argitaratu nuenaren berri eman nion, Goitia zenaren paperetaz arreta har zezan. Duela zenbait hilabete aditzera eman zidan Egillor jaunak Goitiak bi anaia zirela eta paper guziak bildurik zeuzkala eta nahi nuenean joateko bertara.

Hil honen zortzian, Bertsolari txapelketa eratzeko Azkoitian izan genuen bilera eguna aprobetxatuz, arratsaldez joan nintzen Loiolara eta han Goitiatarren esku-izkribuak ikertu. Eta, latinez, italeraz eta gazteleraz idatzitako lanen artean Labayruk aipatzen zituen euskarazko *Ejercicios de басcuence* direlakoak aurkitu nituen. Ariketa eta hitz zerrenda guti batzu eta anitz esaldiz hornitzen diren hiru liburuxka guziz. Baina, *San Borjaren bizia-ri amardunde...* deritzanik ez nuen aurkitu.

Hiru liburuxkak, esku-izkribuz, esaldi bildumak dira. Beren garrantzia dute, idatzi ziren garaiagatik ez ezik, euskarazko lehen fraseologia bildumak direnezkerok. Bertan, egileak, esaera jatorrak biltzen ditu, gramatikazko arieketa batzuren inguruan ikasteko eran.

Hara hemen hiru liburuxken xehetasunak:

I. *Siglo 18.º Ejercicios del euskara en dialecto central o guipuzcoano*

(Hori du izenburutzat, baina ezta egilearen eskuz idatzia. Kartulina azalez kuaderno gisa jarria da.)

21 × 15,5 zm.; 80 orrialde.

II. *Siglo 18.º Ejercicios de bascuence en dialecto central o guipuzcoano*

(Pergamino larruz enkuadernatutako liburuxka. Hemen ere, izenburuak eztu egilearen letra.)

15 × 10,5 zm.; 78 orrialde.

III. *Izenbururik gabeko liburuxka, baina besteak bezala, fraseologiaz da*

(Pergamino larruz enkuadernatua.)

14,5 × 10 zm.; 68 orrialde.

Hiru liburuxkok, Aita Jose Ramon Egillor jaunari esker, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan serokopiatzeko aukera izan dugu. Eta, horiekin batean, laugarren liburuxka bat ere bai, gazteleraz idatzia, bere azalean *Diario y viajes del P. Diego de Goitia, S. J.* deritzana (12 × 9,5 zm. neurriz, 12 orrialde dituen), egilearen bizitzaz ematen dituen agiriegatik.

Lana irakurtzeaz, ez dago zalantzarik Aita Larramendiren gramatika eta hiztegia erabili zituela, baina ez beti. Inoiz agertzen dira Larramendik jaso gabeko hitzak ere eta, egileak berak igarri gabe, bizkaiko aditz formak ere sartzen ditu. Larramendiri jaramon egin zion adibideak lehen liburuxkan bertan aurkituko ditugu. Adibidez, hara zer dion 16. orrialdean: “Aita Cardaverazec dio: Larramendiaren Artea escuetan iñoiz ere artcen ezdet (ta pascotan artcen, ta iracurten det, ta gueiago, ta obeto, albanu, nai nuque) miretsi, ta Jaincoa alabatu gabe”. 72tik 75. orrialdera bitartean euskarari buruzko zenbait eritzi ematen ditu eta bertan egiten duen aipamen batean honako hau aitortzen du: “Ezinac ta nequeac lazqui garaitu cituen Aita Larramendic, ta ori bere Artean, eta Iztegian Maisua bezala eman dizquigu”.

Larramendiri beti jarraituko ez dion adibidea ordea, lehen liburuxka beraren 9. orrialdean agertuko digu: “Gauzaren batzuetan bearbada obeto itzqueraren legueac gordetcen dituzte Señorioan: Acaso en algunas cosas guardan mejor las leyes del hablar en el Señorío”. Eta, 74. orrialdea eritzi bera berriz agertuko du.

Liburuxka horien helburua zer zen ere argi azaltzen du bere esaldi batean: “A los bascongados, que no saben leer, alguno, que lo sepa, y esso

para hacer más fácilmente, quiero mostrarlo el camino: iracurten ez daquien euscaldunai, daquien batec iracurri, ta errazago eguiteco, nic bidea ernari nai diet”.

Hitzak eta esaldiak metatzen ditu bere lehen orrietan. Batzutan euskara hutsean eta urrengo (gehienetan) gaztelerazko itzulpenez. Gaztelerazko itzulpena bera ere, batzutan aurretik eta bestetan atzetik doa. Aurretik doana, badirudi, lehen pentsatua dela eta ondotik doana itzulpena. Pundu hau ondo kontutan hartu beharrezkoa deritzat, zein den jatorra eta zein itzulpena ezagutu ahal izateko.

Guti batzutan, hitz eta esaldi batzuk berriz errepikatuak aurkitzen dira.

Esaldietan erabiltzen dituen gairik gehienak Biblia edo erlijio ingurukoak dira, baina ez beti. Euskarak bere baitan dituen ahalmen bereziak ere markatu nahi ditu, hizkuntza logikoaren aldetik. Horregatik esango digu: “El basquense tiene grandes privilegios en comparación de otros, y no tiene los enredos de los otros: Eusquerac besteen aldean privilegio andiac ditu; eta naspilla, edo iscambillaric ez” (12 orr.).

Honetan, euskarak gramatikaz dituen alde onak erakutsi nahi ditu. Adibidez: “Substantivo berequico icenac eransi, ta elcarrequin batean esatea, eusqueraren privilegioa da: ta ala zaldibidea, gurdibidea, onbidea esaten da: cristabide, cristaufede, cristaulegue, cristaudotrina, ta cristabizitza” (75 orr.).

Hitz bitxiak ere jasotzen ditu. Adibidez: *Ezconzarimea; legitimo, lotecumea, natural; eortzumea, póstumo*, eta abar. Baina, gehienbat esaldietara lotzen da eta hara hemen lehen liburuxkaren azkenaldiko adibide bat: “Noiz-nai: Cada qual en su turno: cein bere chandan, aldian. Cada cosa de por sí: bacoitza bereci. A cada passo: pausoro. Con el tiempo: demboraren buruan. Empezo a llorar: negarri eman cion. Orduan campotic datorren. Tullido: elbarritua. Ea fede osoaz belaunicatu ta Jaunari esca diozagun, gure semea biciric digula...” (78 orr.).

Esaldien barna, santuak aipatzen dituenean, beren ofizioak ere zerrendan datoz, era jatorrez emanak. Lehen liburuxka honen azken orrialdean, 80.ean, latinetik zein gazteleratik euskarara itzulpenak egiteko beharrezko iduritzen zitzaizkion legeen berri ematen du. Horregatik, bere esaldien itzulpenei buruzko aburu zuzenaren berri aurki dezakegu.

Bestalde, esan beharra dago, lehen liburuxka hori 40 plana edo foliotan lau atal edo idazki zerrendatan dagoela, erditik josirik. Beraz, 1-2 orrialdeen jarraipena liburuxkaren azken aldean aurkitu behar da, han bai daude 3-4 orrialdeak, eta era hortara dago guzia, azken orrialdeak, 77-78 eta 79-80 liburuxkaren erdi erdian bukatzen direla. Baina, Azkue Bibliotekan serokopiatua 1etik 80ra ordena normalean jarri dugu.

Bigarren liburuxkan ordea, beste eragozpen bat izan behar dugu kontutan. Bere lehen 41 orrialdeak, lehendabizi idatzitako lerrounen tartean, hutsune zuria berriz idatziz aprobetxatua dago. Paper faltaz hori egina nonbait.

Lehenengo liburuxka hitzekin bezala, bigarrena aditzen denborak adieraziz hasten da: “Eguin dit, eguiten dit, eguin zat,...”; eta atzizkien adibideak jarriaz: “Clarua, modua, puntua...” Gainerakoan, bestean bezala jarraitzen du esaldiak metatuz, batzutan itzulpenez eta beste batzutan euskara hutsean.

Euskararen jatorriaz ere arduratzen da eta zenbait eritzi eman ere bai esaldietara bideraturik: “El origen del bascuence debemos averiguar de alguna manera de los Discursos: eusqueraren berri beste Itzquetetic nolabait zera (sic) bear degu” (32 orr.).

Aurreraxeago Kardaberazen ideetan kutsaturik zegoela nabari du: “Eusquera Jaincoac nai ta menditarte oietan beti nasgabe beti garbi, beti seguru beregan gorde izan da... Chanchetan esan oi da edo esan oi dute, Jaincoac Adani esan ciola eusqueraz: Adan non cera? Baña gauza ciertoa da, Paradisuan izqueta hebreoz izan zala” (33 orr.). Euskara zahartzat jotzen du, baina ez du sinesten euskara Paradisuan mintzatu zenik.

Bigarren liburuxka honek, azkenaldeko gehiena eliz gaiez du, eta lehen liburuxkako 21. orrialdean bezala, San Isidroren mirakuluz ari da.

Hirugarren liburuxka, izenbururik gabea, hiruretan tipiena da eta era berean jarraitzen du. 5. orrialdean Aita gurea os-osorik dakar, testu barnean sartua. Bibliako pasarteak, beste bietan baino gehiago dakartza, proportzioz. 22tik 27. orrialdera gramatikazko ariketa hutsez dator, esaldi bakoitzari forma singularra eta plurala emanez. Adibidez:

“Aquél me lo come: jaten dit: p. didate.
 Aquél me lo comía: jaten cidan: p. cidaten.
 Cómamelo aquél: jan biezat: p. biezatet.
 El melo coma: jan diezadan: p. diezadaten.
 El melo comiera: jango liquet: p. lidaquete.
 Me lo comiesse: jan ciezan: p. ciezedan.
 Si él me lo comiere: jan badiezat: p. badiezadate.
 Me los come: jaten dizquit: p. dizquidate.
 Me los comía: jaten cizquidan: p. cizquidaten.
 Cómamelos él: jaten bitzaizquit: p. bitzaizquida.
 El melos coma: jan dietzaizquidan: p. dietzaizquidaten.
 Me los comiera: jango lizquiuet: p. lizquidateke.
 Me los comiesse: jan cietzaizquidan: p. cietzaizquidaten.
 Si melos comiere: jan badietzaizquit: p. badietzaizquidate.
 Aquél te lo coma: jaten dic: p. ditec. Adoragarria.
 Te lo comía aquél: jaten cien: p. jaten cieten.
 Aquél te lo coma: jan diezaan: p. diezatean.
 Aquél te lo comiera: jango liquec: p. liquetec.
 El te la comiesse: jan ciezaan: p. ciezaaten.
 Si él te lo comiere: jan badiezac: p. badiezatec.” (23 orr.).

Beraz, hiru liburuxkok, hitzez eta aditez aberats datoz. Gainera, tarte-ka, esaldiak ez ezik esaerak ere sartzen ditu. Denak, aldez aurretik pentsatuak eta hautatuak direnez, aberatsa da benetan bertako ekarria. Horregatik, nere ustez, merezi luke Euskararen Lekukoak sailerako edizio bat prestatzea, dagoen dagoenean grafia bera ere errespetatuaz eta atzean hiztegi eta adiztegi zerrendak bakoitza agertzen den orrialdea eta lerroa zenbakiz jarriaz, hitz edo aditz bakoitzaren kontestu edo ingurua laster aurkitzeko eran. Egileak berak emana bait da hitzen eta aditzen ingurunea.

Egilearen berri jakiteko, *Diario de viajes del P. Diego de Goitia, S. J.* izenburuz gaztelera idatzitako liburuxka ere serokopiatu genuen. Hor, euskarazko lanen berririk ematen ez badigu ere, hil baino sei urte lehenagora arteko ibilera eta beste zenbait zertzelada eman zituen.

Azalean bertan datorren ohar batean dio: “Los PP. José y Diego de Goitia eran hermanos y naturales de Aulestia en Vizcaya”. Beste norbaitek idatzitako oharra da. Baina, barnekoa, esaldiak idatzi dituenaren letra ber bera da.

Diego Goitia Loiolan hil zen, 1829.eko Urriaren 3an, laurogetahamar urte betetzeko zorian zegoela. Bidaien liburuxka hau jaiotza eta bataioa aipatuz hasten da. 1739ko azaroaren 27an sortu zen Aulestin. Hala dakar liburuxkak, egunaren ondotik eguneko santu izenak emanez, egunkari guzian jarri zuen bezala: “Nacimiento 27 noviembre de 1739: V. Santiago Interciso Martyr. Bautismo 27 noviembre de 1739: Santiago de la Marca Confessor. S. San Esteban Anacoreta y Martyr”.

Konfirmazio eguna ere jartzen du. Portugaleten 1753an Burgosko Artzapezpikuagandik. Hemeretzi urtekin hartu zuen apeztzarako bidea eta hogeita batekin egin zituen botoak (1760ko irailaren 20an). Ez du jartzen non. Baina egun batzu barru Santiago de Compostela-ra joan zen eta han urte bete egin ondorean Salamanca-ra (1763). Mezak eta erligio ospakizunak aipatzen ditu eta beraren bidaietan non bazkaldu edo non afaldu zuen. Handik lau urtetara, 1767an, Jesulaguna zenez, Italiara desterratua izan zen. Urte horretako Apirilaren 4ean irten zen Salamanca-tik 10ean Santanderrera heltzeko. Maiatzaren 7an hartu zuen itsasuntzia, Italiara eramango zuena. Beste hamar egunen buruan han zen Italian. Lazareton lurra hartu zuen Urriaren 10ean, Genova-tik pasa ondoren, eta Florencia-tik Bolonia-ra, 1768.eko Azaroaren 29rako. Han jarraitu zuen 1773an Jesusen Lagundia abolitu ondorean ere. 1781.eko Irailean gaixotu zen. Eztu esaten zer izan zuenik, baina bi urtez iraun zuen geixorik. 1785.eko Maiatzaren 8an berriz ere eri aurkitu zen, sei hilabetez. Ondoko urteetan inguru hartan mugitu zen, eta 1793an berriz ere osasunez gaizki jarri zen, eta urte horretako Maiatzaren 27an elizakoak eraman ere bai, Ekainaren 2an ordea, gantzadura edo oliodura hartu ere bai.

1798. urteko Maiatzaren 24ean Boloniatik Aulestira bidean abiatu zen. Bidaia nondik nora egin zuen eta otorduak non egin zituen jartzen du. Ekainaren 2an irten zen Genova-tik itsasontziz eta handik bost egunetara ingelesak

preso hartu, biharamunean San Marinon libre uzteko. Handik lau egunen buruan heldu zen Palamos-era, eta handik Barcelona-ra. Barcelonatik lehorrez Bilbora eta 1798.eko Uztailaren 14an heldu zen Aulestira.

Sorterrian etzuen luzaro iraun, 1801.eko Apirilaren lehenean berriz ere desterratua ikusi zuen bere burua. Apirilaren 9an Aulestitik irten beharra izan zuen, Ziortzatik Durangora joaz eta hantik Gasteiz, Haro, Logroño, Zaragoza eta Leridatik Barcelona-ra. Maiatzaren 14an hartu zuen itsasontzia Civitavecchia-ra 28an heltzeko. Ekainaren 5ean heldu zen Erromara. Han jarraituko zuen sei urten, gero Napoles-era joateko. 1806.eko Maiatzaren 26an berriz botoak egin beharra izan zuen. Ekainaren 2an, Pentekoste egunez erori omen zen Jesusen Lagundia eta biharamunean Erromara desterratua izan zen. Handik berriz ere Boloniar (1810ean), non egingo zuen Profezioa 1814. eko Urriaren 10ean. Eta handik urte betera irtengo zen Boloniatik Espainiara. Florenziatik Liorna-ra joaz eta itsasoz Ibiza-ra eta hemendik Valencia-ra. Valencia-tik lehorrez Madrid-era eta hemendik Loiolara, 1816.eko Irailaren 23an heltzeko. Orduandanik hil arte Loiolan bertan jarraitu zuen. Bidaian liburukako azken oharra 1823.eko Uztailaren 22koa da.

Ageri denez, bere bizitzako azken hamairu urteak Loiolak igaro zituen. Eztu ezer adierazten esaldiei buruzkorik. Behar bada azken urte horietan idatziak dira. Dena dela, lan jakingarria iduritzen zaigu.

OHARRA: Joan Goikoetxea Maiza jaunak, batzarrean adierazi zuenez, Diego de Goitiaren lanek beren garrantzia dute historiaren aldetik, deserritu aurretiko jesuita euskaltzaleekin eta restaurazioan partaide izan eta ondorenekoekin izan zuen loturagatik. Gainera, Loiolako ikastetxearen hasieran bera izan omen zen bertako zuzendaria.